



**M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDALAREN
IDAZKARI NAIZENAK**

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2021eko apirilaren 28an, beste batzuen artean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

2021 URTERAKO OIARTZUNGO UDALEKO ARAU-PLANA ONARTZEA

Administrazio Publikoen Prozedura administratibo arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132 artikulua honakoa xedatzen du:

“Urteko arautegi-planifikazioa.

1. Urtero, Administrazio Publikoek arau-plan bat argitaratuko dute, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren legezko edo erregelamenduzko ekimenak bilduko dituen.

2. Onetsi ondoren, urteko plan arauemailea kasuan kasuko administrazio publikoaren gardentasunaren atarian argitaratuko da.”

Udaleko sail desberdinek emandako informazioaren arabera, honako arauak onartzeko beharra ikusi da:

1. Hilerria eta beilatokiaren funtzionamendua arautzeko udal Ordenantza.
2. Oiartzungo udalerrian uraren kudeaketa arautzeko udal Ordenantza.
3. Oiartzungo Udalaren administrazio elektronikoa arautzeko Ordenantza.
4. Energia elektrikoaren, gasaren, uraren eta hidrokarburoen garraiorako instalazioen aldeko udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik eta aprobetxamendu bereziagatik tasa ezartzeko udal zerga Ordenantzaren aldaketa.

Ogasun, Kontu-berezien eta beste Gaien Batzordeak 2021eko apirilaren 20an aldeko diktamena eman dio gaiari.

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

LEHENA: 2021 urterako Oiartzungo Udaleko Arau-Plana onartzea, arestian jasotako edukiarekin.

BIGARRENA: Aipatu Plana udal web orriko gardentasun atarian argitaratzea.

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.